

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lekuona, Villasante, Mitxelena, Lojendio, Arrue, Lafitte, eta Dassance jaun euskaltzaiñak. Aresti, Valverde, Zugasti, Loidi, San Martin, Omaetxevarria, Zabala, Zubikaray, Etxaniz eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Aita S. Barandiaran jesuiteak bialdu dauen karta bat irakurri da. Eskerrak emon dituz urgazle izentau dalako.

Jose Luis Lizundia Abadiño-koak idatzi dauen karta bat irakurri da. Diño illen izenetan ikusten dan nastea Euskalerra osoan zuzentzeko Euskaltzaindiak kalendario egilleei rekomendaziño bat egin bear leuskiela batera erabilli daiezan danak: Beste gauza bat be itanduten dau: ia zer erabilli bear dan, *dautsat*, *deutsat*, edo *dautsot*; *daust*, edo *deust*; *dautso*, edo *deutso* eta abar. Mitxelena-k diño *deutsat* eta bere familiakoak direala forma zuzenak, autore zaarrak aspalditik beti alan erabilli dabela, leenagoko denporetan esaten zirean verbo-flexio batzuetan *d* ostein agertzen dan *e* orrek dativoko balioa eukala, autore zaarrak *daigun* eta *deigun* verbo-flexioak berez-ten zituezala —bata dativoa ezdana eta bestea dativoa— Erantzun bekio Euskaltzaindikoai eskatu jakiela ponentziaren batzuk egiteko illen izanak Euskalerra osoan bat egiteaz, eta *deutsat*, *deust*, *deutso* eta euren familia osoa direala zuzenak ezelako duda barik.

Eibar-ko Ayuntamentutik orri bat bialdu dabe zerbait kobretako. San Martin-eri emon jako alan egin daian.

Batzar-buruzagi jagon-sailleko burua izenteteaz berba egin da. Mitxelena eta Arrue-k Lafitte-ri emon deustie botoa, berezkuntza guztien gaiñetik dagoelako. San Martin-ek eta Loidi-k diño burua mugaz goialdean egotea ezala egokia. Loidi-k diño batzar-buruzagi orretan jente gitxi dagoela, eta geiago sartu bear litzakezala. Irigoyen-ek diño ori egin bear bada egoki izango litzakeala Euskaltzaindiko guztiak sartzea eta eztabaidatan ibilli barik Euskaltzaindiak momentu baktotxean egin bear dauena batuta gagozan batzarrean erabagitea. Lojendio-k diño Loidi bera sartu leitekeala batzar-buruzagi jagon-sailleko sekretario legez eta zerbait egitea gura danean Euskaltzaindiko sekretaritzeagaz bat egin da ibilteko. Alan erabagi da.

Ezta oraindiño artu Arruza jaunaren deskargurik.

Lafitte-k eta Dassance-k diño eurak be mugaz goialdeko euskaltzain bi izentetako kandidato bi aurkeztu gura dituezala. Datorren batzarreko egin begie eta botoak artu beitez arautegiak diñoan gisan.

Iru urgazle barri izentau dira: Mariano Iceta, Francisco Tirapu, eta Aita Felipe Murieta-ko kaputxinoa, *Umeen Deia*-ren zuzendaria.

Etxarri Aranaz-en Nafarroako bertsolarien azken txapelketa nagusia egin da esan zan legez. Bautista Madariaga txapeldun gelditu zan eta bigarren Andres Narvarte.

Ahorro-egunean Bizkaiko Ahorro Kaxearen etxean novela eta teatro-sariak emon jakiezan Erkiaga eta Aresti irabazle biai.

Irigoyen-ek diño Markiña-ko alkatea beragaz egon dala, eta umeen esamiñak egiteko epea luzatzea komeni dala asti geiagogaz obeto prestetako, esan deutsala. Ondarroan, ostera, esan zan legez egingo da. Zubicaray-k diño Abenduko bigarren domekan egin leitekezala esamiñak Ondarroan, eta alkateak esan deutsala iru bear litzakezala juradurako, eta Aita Villasante be sartu daigun gura leukeala; esamiñak egin ondoan jai bat sariak partietako egin gura dauela, eta Antonio Arrue jaunari deitu gura deutsala berba egin daian, eta beste batzuk be gomitatu gura dituzala. Jura-dua izentau da: Aita Villasante, Irigoyen eta Zubicaray.

Euskalzaleen Biltzarra Abenduaren 20-an eta 21-ean Donostiako Ayuntamiento zaarrean egitea erabagi da. Abenduaren 20-an egin lei Orixe zanaren alde mezea. Abenduaren 31-an egin bedi bertsolarien eguna Victoria Eugenia Teatroan. "Centro de Atracción y Turismo" laguntzaille da prestakizun oneitan.

Egin bedi Bilbon Urtarrillaren 7-an Arriaga Teatroan urtero egin oi dan jai. Tolosa-ko Lizardi teatro-taldekoak prest dagoz Toribio Alzaga-n "Osaba" teatro lana emoteko, eta Ondarroako Ume Kantariak kantetako.

Gramatika kipituluez artu direan oarrak irakurteko astirik eztago eta urrengo batzarrerako itxi dira.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.